


Mary
SHELLEY

IÑIGO ERRASTI

L I T E R A T U R A U N I B E R T S A A L A



FRANKENSTEIN

erein & igela

MARY SHELLEY

Frankenstein
edo Prometeo modernoa

Iñigo Errasti Aranbarri
Itzultzailea

erein & *igela*

Jatorrizko izenburua:
FRANKESTEIN; OR, THE MODERN PROMETHEUS

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.

Liburuaren azala eta diseinua: Antton Olariaga
© Itzulpenarena: 2013, Iñigo Errasti
© Argitalpen honena: 2013, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena, S.A.
Ale kopurua: 800

ISBN: 978-84-9746-814-5
Legezko Gordailua: S.S. 1507/13



MARY SHELLEY (1797-1851)

HITZAURREA

1816KO UDABERRIAN, Percy Bysshe Shelley eta Mary Wollstonecraft Godwin (artean ere elkarrekin ezkondu gabeak), Ingalaterra utzi, eta kontinentera abiatu ziren denboraldi baterako. Haiekin zihoazen haien seme William eta Claire Cairmont ere, Maryren ahizpaordeetariko bat. Claire haurdun zegoen, eta, Lord Byron zenez umearen aita, harekin elkartu nahi zuen kosta ahala kosta. Etxe bat alokatu zuten Leman aintziraren inguruan, Genevatik gertu. Izan ere, Byronek etxandi bat alokatua zuen aintziraren ertzean – Villa Diodati –, eta hantxe kokatua zen, bere idazkari eta mediku John William Polidorirekin. Esan liteke, nolabait, etxandi hartan duela Frankensteinen mitoak jatorria.

Uda euritsua izan zen, eta, nahiz oso maite zuten aintziran nabigatzea eta inguru eder haietan ibilaldiak egitea, eguraldi txarrak etxean geratzera behartzen zituen hainbat aldiz. Percy, Mary eta Claire maiz izaten ziren bisitan Byronenean, eta, hala, bi poeta handion artean berehala sortu zen adiskidetasunaren ondorioz, solasaldi luzeak egiten zituzten, denetariko gaien ganean: literatura, filosofia, zientzia... Jakina, Shelley eta Byron orduko jeniorik handienetarikoak ziren, eta pentsa liteke berak izango zirela bilera haien muina, ia-ia entzule huts bilakatzeraino beste hiru lagunak eta aldian-aldian Villa Diodatin izaten ziren bisitariak. «Bigarren mailako» kideok, hala ere, izango zuten arrakastarik, beheraxeago ikusiko dugunez.

Mary Shelley

Gau batez, ekainaren erdialdera, *Phantasmagoriana* izeneko liburu bat irakurtzen ari ziren denak elkarrekin. Beldurrezko ipuinen bilduma bat zen, alemanetik frantsesera itzulia. «Bakoitzak beldurrezko istorio bat idatziko du», bota zuen halako batean Byronek, eta denek onartu zuten haren proposamena. Mary Shelleyk dioenez, bi poetak laster nekatu ziren prosaren arrunkeriak, eta bertan behera utzi zituzten beren kontakizunak. Polidori, berriz, gerora *Banpiroa* izeneko nobela laburra izango zena idazten hasi zen, eta, nahiz eta Bram Stoker-en *Drakula* izan literaturako odol-xurgatzailearik ezagunena, azpigeneroaren sortzailetzat jotzen du askok. Mary zen, beraz, lauretatik ezer idazteko gai ez zen bakarra.

Goizero galdetzen zioten ea istorioren bat bururatu zitzaion, eta ezetz erantzun behar izaten zien behin eta berriz. Liburu hartan irakurriak zituztenen moduko kontakizun bat idatzi nahi zuen, irakurleak izu eta ikara jarriko zituen istorio bat, odola ur bihurtu eta bihotza taupa-taupa jarriko ziena. Ezin ezer asmatu, ordea.

Bien bitartean, Shelleyk eta Byronek solasaldi luzeak egiten jarraitzen zuten, eta, gau-bilera haietariko batean, bizitzaren printzipioaz jardun zuten, besteak beste: ea izango ote zen modurik printzipio hori zertan datzan aurkitu eta haren berri emateko. Luigi Galvaniren saiakuntzak eta Erasmun Darwinen teoriak izan zituzten hizpide. Orduko zenbait zientzialariren arabera, izan zitekeen modurik izaki baten zatiak fabrikatu, batu, eta zer horri bizia emateko. Edo gorpu bat berpizteko.

Gau hartan, oheratzean, Maryk ezin zuen begirik batu; baina pentsatzeko ere ez omen zen gai. Irudimena gogoaz jabetu zitzaion. Begiak itxirik, argi-argi «ikusitako» izan zen istorio guztia: soin-atalak bildu eta gorputz bat tankeratzea lortzen zuen ikaslea; berebiziko indar bat dela medio, biziaz hornitzen

Frankenstein

zuen izaki izugarri hura, hots, munduaren sortzailea imitatu nahi zuen gizakiaren sorkari lazgarria. Bere arrakastaren ondorioz izaturik, ihes egiten zuen gazteak, gauza hari emana zion bizi-txinparta berez itzaliko zelako esperantzan. Loak hartu arren, halako batean begiak ireki, eta han agertzen zen, ohe ondoan, izaki lazgarria, berari begira. Maryk ere begiak ireki zituen, guztiz izaturik. Ikuskari hark bene-benetakoa zirudien, eta kosta zitzaion bere onera etorri eta ameskeriok burutik kentzea. Berehala ohartu zen, ordea, hura izan zitekeela bere beldurrezko kontakizuna, eta beste batzuk ere ikaratuko zituela bera halako moduz ikaratu zuen ikuskariak. Hurrengo goizean, istorio bat bururatu zitzaiola iragarri zien besteei. Egun hartan bertan hasi omen zen idazten: «Azaroko gau ilun batean...». Eta horra mitoa jaio.

Ezer gutxik iragartzen zuen neska gazte batek idatziriko nobela hark arrakasta izango zuenik, eta, are gutxiago, mito bihurtuko zenik. Neurri batean, gorago kontatu duguna ere (1816ko uda hura), mitoaren parte bilakatu da, Mary Shelley berak hartaraturik, hala gertatu zela baitzioen *Frankenstein*en 1831ko argitalpenerako idatzi zuen hitzaurrean. Adituek jakin dutenaren arabera, ordea, hura ez zen egia osoa, eta egileak bere obraz eta bizitzaz zabaldu nahi zuen ikuspuntuari dagokio historiaren bertsio hori. Edonola ere, munstroak berehala kendu zien lekua bere bi sortzaileei. Victor Frankenstein, esaterako, izena ere lapurtu dio. Idazleari dagokionez, obra zenbat eta ezagunago, orduan eta ezezagunago bihurtu zen haren bizitza. Izan ere, Mary Shelley bizirik zela, nahikoa arrakasta izan zuen liburuak, baina, hura publikatu eta bost bat urtetara, munstro itxuragabearen istorioa taularatzen hasi ziren, eta horrexek eman zion ospea benetan. Gero, XX. mendean, ezin konta ahal film egin ziren soin-atalez osaturiko munstroari bizia ematen

Mary Shelley

dion zientzialariaren istorioan oinarrituak. Gaur egun, ez da zorakeria esatea gutxi irakurri eta ia denok ikusia dugun istorio bat dela *Frankenstein*, aspaldi idatzia izan arren zuzen-zuzenean lotzen zaiena zientziaren aurrerapenak eta haren ondorioek gure garaian pizten dituzten eztabaida sutsuei.

Nor zen, baina, halako mito iraunkorra sortzeko gai izan zen neska gazte hura?

Mary Shelley

Mary Shelley 1797ko abuztuaren 30ean jaio zen, Londresen. Haren gurasoak garai hartako artista, politikari eta idazle erradikalen giroko kide esanguratsuenetarikoa izan ziren. Aita-amen eraginak sakonki markatu zuen Maryren izaera eta obra, bai txarrerako, bai onerako. Alde batetik, intelektual talde txiki baten miresmena jaso zuten, baina, beste batetik, gizartearen gehiengoaren arbuioa, eta hori –Shelleyren «ondareari» gehiturik – zama handia izan zen beti Maryrentzat.

Mary Wollstonecraft (1759-1797), alaba jaio eta handik hamaika egunera hila, feminismoaren aitzindaritzat jotzen da gaur egun. Bertatik bertara ezagutu zuen Frantziar Iraultza, eta, orduko gizartean eztabaida-sortzaile izan arren, ospe handiko idazlea izan zen, emakumeen eskubideen aldarrikatzaile. Obra batek eman zion, batez ere, entzutea: *Emakumeen eskubideen defentsa*.

William Godwin (1756-1836) filosofo erradikala zen, *Justizia politikoari buruzko azterketa* izeneko lan bat zela medio fama handia eskuratu eta Erromantizismoaren teoriko gailenetariko bat bihurtuko zena. Eragin ez nolana hikoia izan zuen bere garaian, eta haren etxean biltzen ziren orduko poetarik bikainenak, hala nola William Wordsworth eta Samuel T. Coleridge (izan

Frankenstein

ere, Coleridgek Godwinen etxeko liburutegian errexitatu zuen estreinakoz *Marinel zəbarraren balada*, Mary gaztea han zelarik).

Maryren ama hil eta handik lau urtera, Godwin berriro ezkondu zen, Mary Jane Clairmont izeneko emakume batekin, zeinak, aurrez ezkondua izanik, bi seme-alaba baitzituen: Charles izeneko mutil bat eta Claire, zenbait urte geroago Maryrekin eta Percyrekin Suitzara joan zena. Maryk ez zuen harreman onik bere amaordearekin, eta aitak ere ez zion inoiz nahitasun handirik izan alabari. Hala, gazte bakartia izan zen Mary, ama hilaren hutsunea minki sentitzen zuena.

Frantziar Iraultzaren idealek eta erradikalismoak Ingalaterran jaso zuten erantzun kontserbadorearen ondorioz, William Godwinek galdu egin zuen bere egunean eskuratua zuen ospea. Hala ere, zenbait urte geroago, 1812an, Percy Bhyse Shelley izeneko gazte bat Godwinen etxeko tertulietara joaten hasi zen. Shelleyk maisutzat zeukan William Godwin, eta haren ezaupidea egin nahi zuen. Bisitaldi haietariko batean ezagutu zuen filosofoaren alaba, eta, gizon ezkondua izan arren (bazuen seme bat), 1814ko ekainaren 26an, maitasuna aitortu zion Maryri, haren ama zenaren hilobiaren ondoan, St. Old Pancras-eko hilerrian (Mary hara joan ohi zen, amaren lanak irakurtzera). Maitasun haren berri jakitean, Godwin biziki haserretu zen, filosofo erradikala eta pentsamendu askeko gizona izan arren. Shelleyren emazteak ere, jakina, ez zuen onera hartu harreman hura, eta, alde batetik zein bestetik jasotzen zituen presioak hertsaturik, ihes egitea erabaki zuten bi gazteek. 1814ko uztailearen 14an, kontinentera abiatu ziren, sei asteko bidaldi bat egitera, Claire ere haiekin zihoalarik.

Europa txiki-txiki egina zegoen Napoleonen garaiko gerrateen ondorioz, eta bidaia gorabeheratsua izan zen zinez: geroko bizitzaren aurrerapena inondik ere. Ingalaterrara itzuli,

Mary Shelley

eta, hurrengo urtean, Maryren eta Percyren lehen alaba jaiotzen, Mary Jane, nahiz eta handik gutxira hil umea. Hori gutxi balitz bezala, diru aldetik ere ez zebiltzan batere ondo, eta urritasunean bizi ziren.

Urte hartako apirilean, Mary berriro zegoen haurdun, eta, 1816ko urtarrilaren 26an, William jaiotzen, haien bigarren semea. Guztira, lau seme-alaba izan zituzten, baina batek bakarririk iraun zuen bizirik, beste guztiak Europan zehar hara-hona eginiko bidaldietan hil baitzitzaizkien. Hala, bada, giro itogarri hartatik ihes egin nahian, eta Clairek Byronekin egoteko zuen gogoak bultzaturik, Genevara abiatu ziren 1816ko udaberriaren amaieran.

Uda zorionsua izan zuten: pasieran ibili, irakurri, aintziran nabigatu... Goraxeago esan dugun bezala, Lord Byronekin bildu, eta literaturaren historian ia-ia mitiko bihurtu den egonaldi bat egin zuten Lemana aintziraren ertzean. Hala ere, udaldi hura ez omen zen izan Maryk aditzera eman nahi izan zuen bezain idilikoa. Alde batetik, Claire beti izan zen kezka batekin Maryrentzat: Byronekin zuen harremanaz gainera, badirudi Shelley liluraturik zegoela emaztearen ahizpaordearekin, eta neska gaztea maite-jolasetan aritzen zela harekin. Shelley bera, bestetik, nahiko larriturik bizi zen: ez zebilen batere ondo diruz, eta Ingalaterratik ihes egin behar izan zuen, bi emakumerekin. Azkenik, Byronek ere ez zuen harreman erraza Polidorirekin, eta, gainera, ez zen ibiltzen beren arteko tirabirak ezkututzen. Dena dela, batera zein bestera izan, uda hartan hasi zen Mary Shelley *Frankenstein* idazten.

Abuztuaren amaieran, Ingalaterra itzuli ziren guztiak. Urte hartako urrian, Maryren beste ahizpaorde batek –amak Frantziar Iraultzan ezaguturiko amerikar abenturazale batekin izaniko alaba bera– bere buruaz beste egin zuen. Abenduaren

Frankenstein

hasieran, berriz, ibaian itota aurkitu zuten Harriet Shelley, Percyren emaztea (bere buruaz beste egin zuen hark ere). Mary eta Percy abenduaren 30ean ezkondu ziren.

Hurrengo urteak sormen-garai oparoa izan ziren bientzat. Urte haietan idatzi zituen Percy bere lanik ederrenak. Maryk, berriz, *Frankenstein* argitaratu zuen 1818an –hasieran, anonimoki–, eta *Mathilda*, 1820an.

1818ko martxoan, Mary eta Percy Italiarako bidean jarri ziren, beren bi semeekin. Claire eta haren alaba Allegra ere haiekin zihoazen. Hurrengo lau urteetan, bi semeok eta senarra hil zitzaizkion Maryri. Percy Shelley itsasoan itota hil zen, 1822ko uztailaren 8an. Haren gorpua Viareggioko hondartzan erraustu zuten Byronek eta beste bi lagunek. Mary 1823an itzuli zen Ingalaterrara, laugarren semea (1819an jaioa) berekin zuela.

Handik aurrera, idazteari eman zitzaion, eta ardura nagusi bi izan zituen bizitzan: geratzen zitzaion seme bakarra zaindu eta harentzat bizimodu duina eta egokia eskuratzea, batetik, eta, bestetik, bere senarraren lan guztiak biltzea eta haren izena ahanzturatik libratzea. Beti saiatu zen bere aurreko bizitza gorabeheratsua atzean utzi eta bizimodu errespetagarria lortzen. Eta, lortu ere, lortu zuen. Maryk behin eta berriz eskatu ondoren, Sir Thomas Shelleyk, poetaren aitak, iloba onartu, eta hari utzi zizkion bere fortuna eta titulu guztiak. Percy Florencek, hala, bere amaren ustez zegozkion hezkuntza eta maila lortu zituen. Maryk, berriz, beste bost nobela idatzi zituen, baina ez zuen inoiz *Frankenstein* bezalako lan handirik idatzi. Nolanahi ere, entzute handiko idazlea izatera iritsi zen bere garaian.

1851ko otsailaren 1ean hil zen, berrogeita hamahiru urte zituela. Amaren nahia bete nahirik, Percy Florencek, William

Mary Shelley

Godwin eta Mary Wollstonecraften gorpuzkinak lekuz alda zitzaten agindu, eta haien hilobien artean lurperatu zuen Mary Shelly. Percy Florence bera hil zenean, amaren hilobi berean lurperatu zuten, aitaren bihotzarekin batera.

* * *

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet itzulpen-lan honetan lagundu didaten guztiei. Hala ere, ezin ditut aipatu gabe utzi lagun bi, inoiz pazientziarik galdu gabe irakurri eta iruzkindun baitituzte nire lanak: Nestor Atxikallende eta Joseba Urzelai dira adiskideok. Eta, nola ez, etxeko biak ere ezin ahaztu, beti izan baititut ondoan ordenagailuaren aurrean zientzialari obsesionatu baten antzera igaro ditudan ordu luzeetan. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Iñigo Errasti Aranbarri

MARY SHELLEY



Frankenstein
edo Prometeo modernoa

LEHEN GUTUNA

SAVILLE ANDREARI, INGALATERRA

San Petersburgo, abenduaren 11, 17**

Biziki poztuko zara jakinik ezein hondamenek ez diola jarraitu zuri halako susmo gaiztoa ematen zizun bidaia honen hasierari. Atzo iritsi nintzen hona, eta lehenengo eginkizuna dut nire arreba maiteari ziurtatzea onik nagoela eta areagotuz doala ekinbide honen arrakastan dudan konfiantza.

Londrestik oso iparraldera nago dagoeneko, eta, Petersburgoko kaleetan zehar nabilela, iparreko haize kirri hotz bat nabari dut masailetan, nerbioak bizkortzen dizkidana eta atseginez betetzen nauena. Ulertzen al duzu sentipen hori? Bidaia honetan jomuga ditudan eskualdeetatik heldu da haize kirri hori, eta izotzezko klima haien kutsua dakarkit. Ametsak eta itxaropenak bizi-bizi suhartzen zaizkit haize adoregarri horrek akuilaturik. Alferrik saiatzen naiz neure buruari sinestarazten izotzaren eta desolazioaren egoitza dela poloa; nire irudimenari beti agertzen zaio edertasunen eta atseginen eskualde baten irudian. Han, Margaret maitea, beti ageri da eguzkia: haren esfera zabalak inguru egiten dio zerumugari, eta betiereko distira bat ematen du. Han –zeren, zure baimenaz, ene arreba, sineste apur bat emango baitiet gure aurretiko nabigatzaileei–, han, ez da ez elurrik ez izotzaldirik, eta, itsaso barearen gainean nabigatuz, baliteke haizeak leunki eramatea gure ontzia, mundu bizigarrian gaurdaino aurkituriko eskualde guztiek baino miragarri eta edertasun gehiago dituen lur bateraino. Baliteke lur hartako

zabaldi eta ikuskariak berdingabeak izatea, zeren, ezbairik gabe, halakoxeak baitira zeruko gorputzen fenomenoak ere bakartegi ezezagun haietan. Zer ezin liteke espero argi amaigabea duen herrialde batean? Ausaz, han aurkituko dut iparrorratza erakartzen duen mirarizko indarra, eta han doitu ahal izango ditut zeruan egin diren mila behaketa, zeinak bidaia hau besterik ez baitute behar beren ustezko bitxikeriak koherente bihurtzeko betiko. Nire jakin-min larria ase ahalko dut inork sekula bisitatu ez duen munduko parte horren ikusmiran, eta baliteke ezein gizonek oinik ezarri ez duen lur bat ibiltzea oinpean. Horra nire gogoaren pizgarriak; aski dira heriotzaren edo arriskuen beldur oro mendean hartu eta pozarren abia nadin bidaia neketsu honetan; ume bat bezala, oporretako lagunekin bateltxo batean sartu eta herriko ibaian gora doanean aurkikuntza-espeditioan. Demagun, ordea, faltsuak direla aburu horiek guztiak; hala ere, ezin uka dezakezu onura ordainezina ekarriko diodala gizadi guztiari azken belaunaldiraino, baldin eta igarobide bat aurkitzen badut polotik hurbil, gaur egun hainbat eta hainbat hilabeteko bidea behar duten herrialde horietara heltzeko; edo baldin eta imanen sekretua agerrarazten badut, zeren sekretu hori, inola agertzekotan, nire egiteko honen moduko batekin soilik agertuko baita.

Gogoeta horiek uxatu egin dute gutuna hastean nuen urduritasuna, eta zeruetara goratzen nauen gogo bizi batez distiran dut bihotza. Izan ere, ezerk ez du hala burua baretzen nola asmo sendo batek; alegia, arimak irudimena non finka izateak. Espeditio hau izan dut gazte-gaztetatik ametsik gogokoena. Hainbat bidaia-liburu irentsi ditut, Ipar Ozeano Barera poloaren inguruko itsasoetan zehar iristeko asmoz egin diren espeditioei buruzkoak. Gogoan izango duzu aurkikuntzazko xedez egin diren bidaien historia bat besterik ez

zela gure osaba Thomasen liburutegi guztia. Nire hezierari ez zitzaion arretarik jarri, baina, hala ere, irakurzale amorratua nintzen ni. Gau eta egun jarduten nuen liburuok arakutzen, eta haietan murgiltzeak areagotu besterik ez zidan egin gure aitaren azken nahia jakiteak umetan sentiarazi zidan atseka-bea: alegia, debekatu egin ziola osabari marinelen bizimodua hartzen utz ziezadan.

Amets horiek, ordea, itzali egin ziren, estreinako aldiz irakurri nituenean beren jarioaz nire arima liluratu eta zeruetara jaso zuten poetak. Ni ere poeta bilakatu, eta neronek sorturiko paradisu batean bizi izan nintzen urtebetez; imajinatu nuen nik ere eskura nezakeela nitxo bat Homero eta Shakespeare gurtzen dituzten tenplu berean. Ondo dakizu, baina, nire porrotaren berri, eta zeinen zama astuna ezarri zidan etsipenak. Dena dela, garaitsu hartan, gure lehengusuaren ondasuna jarauntsi nuen, eta lehengo ildo berera etorri zitzaizkidan pentsamenduak.

Sei urte joan dira nire zeregin honetara deliberatu nintzenetik. Oraindik ere, gogoan dut noiz eman nion neure burua eginkizun handi honi. Hasteko, gabetasunera ohitu nuen gorputza. Zenbait itsasalditan joan nintzen baleazaleekin Ipar Itsasora; neure borondatez jasan nituen hotza, gosea, egarria eta lorik eza; egunez, marinel arruntek baino gogorrago lan egiten nuen maiz, eta, gauez, ikasketetara jartzen nintzen: matematika, medikuntzaren teoria eta itsasoko abenturazale bati praktikan probetxuzkoen gerta dakizkiokeen fisikaren arloak. Areago, birritan eman nuen izena Groenlandiako baleontzi batean bigarren pilotu gisa, eta bai miragarririo moldatu ere eginkizun hartan. Aitortu behar dut harrotasun moduko bat sentitu nuela gure kapitainak ontziko bigarren kargua eskaini eta gogorik bizienaz

eskatu zidanean berarekin gera nendila, hain zituen-eta estimu handitan nire zerbitzuak.

Bada, orain, Margaret maitea, ez al dut merezi xede handiren bat burutzea? Eroso eta luxuan igaro nezakeen bizitza, baina, hala ere, nahiago izan dut aintza ezen ez aberastasunak eskaini dizkidan amu eta beita guztiak. O, emango ahal dit baiezkoa ahots adoregarriren batek! Sendo ditut bihotza eta kemena, baina gorabeheratsu itxaropena, eta gogoa galtzen dut askotan. Bidaia luze eta zail bati ekiteko zorian nago, eta indar guztia beharko dut larrialdietan: besteen gogoa adoretu ez ezik, neureari ere eutsi beharko diot haiena iluntzen denean.

Hauxe duzu urte sasoirik onena Errusian zehar bidaiatzeko. Hegan bezala doaz beren leretan elurraren gainetik. Mugimendu gozatsua dute lerok; Ingalaterrako diligentziena baino askoz atseginagoa, nire ustez. Ez da hotz handirik pasatzen larruz bilduta ibiliz gero. Ni ere hala janzten naiz dagoeneko, inondik inora ez baitira gauza bera ontziaren bizkarretik ibiltzea eta orduak eta orduak geldirik eserita egotea, zeren, lera gainean, ez baita ariketarik egiten odola zainen barruan izotz ez dakigun. Ez dut batere gogorik San Petersburgo eta Arkhangelsk arteko posta-bidean bizia galtzeko.

Bigarren horretara abiatzekoa naiz bi edo hiru aste barru; nire asmoa zera da: han itsasontzi bat alokatzea (gauza erraza, jabeari aseguru ordainduz gero), eta behar beste marinel hartzea, balearen arrantzan ohituak daudenen artetik. Ez dut asmorik ekaina etorri arte itsasoratzeko; baina, itzuli, noiz itzuliko ote naiz? A, arreba maitea! Nola erantzun galdera horri? Arrakasta badut, hilak eta hilak igaroko dira, urteak beharbada, zuk eta biok berriro elkar ikusi baino lehen. Porrot egiten badut, berriz, laster ikusiko nauzu, edo inoiz ere ez.

Frankenstein

Agur, bada, Margaret eder maitea. Zeruak bere bedeinkazioa isur dezala zure gainean, eta salba nazala ni, behin eta berriro erakuts diezazudan zure maitasun eta ontasun guztiak merezi duen esker ona.

Bihotzez maite zaituen zure neba,

R. Walton

BIGARREN GUTUNA

SAVILLE ANDREARI, INGALATERRA

Arkhangelsk, martxoaren 28a, 17**

ZEINEN ASTIRO IGAROTZEN DEN DENBORA HEMEN, izotzak eta elurrak inguraturik nagoela! Egin dut, dena dela, nire egitekoan bigarren urratsa. Ontzi bat alokatu dut, eta marinela biltzen dihardut orain; dagoeneko hartuak ditudan gizonak fidatzeko modukoak dirudite, eta adore izukaitz baten jabe dira inondik ere.

Badut, ordea, behar handi bat egundaino asetzerik izan ez dudana, eta behar hori zerekin ase ez izatea gaitzik larriena bezala sentitzen dut orain: ez dut adiskiderik, Margaret. Arrakastaren suak gogoberoturik naukanean, ez dut izango zoriona norekin partekatu; etsipenak gaitzen banau, inork ez du ahaleginik egingo ni makalalditik jasotzeko. Paperari fidatuko dizkiot nire gogoetak, hala da; baina bitarteko urria da hori sentimenduez hitz egiteko. Ondo ulertuko nauen gizon bat izan nahiko nuke kide, begirada batez nire begiei erantzuteko gai den gizon bat. Erromantikoa naizela iritziko diozu agian, arreba maitea, baina adiskide baten behar larria dut. Nire egitasmoak onetsi edo zuzendu behar izanez gero, ez dut inguruan inor, neurritsua izanagatik, adoretua ere badena, ikasia eta buru ahalmen handikoa, eta neure moduko gustuak dituena. Nola konponduko lituzkeen halako adiskide batek zure neba gaixoaren akatsak! Gogotsuegia nauzu egitasmoak gauzatzen, eta egonarri gutxikoa zailtasunetan. Hori baino gaitz larriagoa dut, horratik, neure burua hezi izana: bizi-

tzako lehen hamalau urteetan, basatien antzera ibili nintzen baso-zelaietan zehar, eta gure osaba Thomasen bidaiia-liburuak besterik ez nuen irakurri. Adin hartan, gure herriko poeta ospetsuenak ezagutu nituen, baina berandu sentitu nuen gure jaioterriko hizkuntzan ez ezik beste batzuetan ere trebatzeko beharra, zeren, ordurako, nahiz eta hartaz ondo sinetsita egon, ez baitzen nire esku halako asmo bati onurarik baliotsuena atera ahal izatea. Hogeita zortzi urte ditut orain, eta, benetan diotsut, hamabost urteko eskola-ume asko baino ezjakinagoa nauzu. Egia da gogoeta gehiago egina naizela eta nire ametsak zabalagoak eta apartagoak direla, baina zera falta dute, *oreka* (pintoreen esanetan), eta horrexegatik behar dut adiskide bat, nahikoa zentzu duena erromantikoezia naizela-eta ni ez guxtiesteko, eta, aldi berean, nire gogoia doitzen ahalegintzeko adina nahitasun ere badidana.

Tira, alferrik dira arrangurok. Ziur asko, ez dut lagunik aurkituko ozeano zabalean, ez eta hemen ere, Arkhangelsken, merkatari eta itsasgizonen artean. Eta, hala ere, badira are bular latz horietan ere giza izaeraren zitalkeriarekin zerikusirik ez duten sentimendu batzuk. Nire lotinanta, esaterako: miresgarriak dira haren adorea eta ekimena; loria-gura itsua du, edo, esan dezadan egokiago, bere lanbidean aurrera egitekoa. Ingelesa duzu, eta, hezibidez leundu gabeko nazio- eta lanbide-aurreiritziekin nahasian, baditu gizatasunaren dohain jatorrenetariko batzuk ere. Baleontzi batean egin nuen haren ezaupidea, eta, jakin nuenean hiri honetan zela lanik gabe, berehala hartu nuen soldatapean, nire eginkizunean lagun ziezadan.

Kapitaina bera ere izaera bikaineko pertsona duzu, eta nabarmena da zer gozotasun eta diziplina lasaia darabilen ontzian. Gehituiezazkiozu horri haren zintzotasun ezaguna eta adore

izukaitza, eta horra hor zerk bultzatu nauen hura ontzian hartzera. Gazte-denbora bakartasunean igaro nuen, urterik onenak zure hegalpearen gozotasun emean, eta horrek hainbestearino leundu du nire izaeraren funtsa, non ezin gaindi baitezaket ontzietan erabili ohi den basakeriari diodan ezinikusi handia. Izan ere, ez diot inoiz beharrezkoa iritzi, eta, beraz, entzun nuenean bazela marinel bat, hala bere bihotz onberatasunagatik nola eskifaiak zion errespetu eta obedientziagatik nabarmentzen zena, bereziki zorionekotzat jo nuen haren zerbitzuak neureganatu ahal izatea. Nahiko modu erromantikoan izan nuen lehenengoz haren aditzea; hain zuzen ere, bere bizitzako zorion guztia kapitainari zor dion dama batengandik. Hona, hitz gutxitan, gure lagun horren historia. Duela urte batzuk, ondasun urriko dama errusiar batez maitemindu zen, eta, nola kapitaina dirutza handia egina zen itsasoko egitandien sariz, neskaren aitak on iritzi zion ezkontzari. Badoa gure gizona hitzarturiko zeremonia baino lehen bere maitea ikustera, eta hara non aurkitzen duen negarrez urtu beharrean. Haren oinetara jartzen da neskatxa, erreguz barkamen eske: beste bat maite duela, baina pobrea dela hura, eta aitak ez duela inoiz onartuko harekin ezkon dadin. Nire lagun eskuzabalak, orduan, neska lasaiarazi, eta, hark benetan maite duenaren izena jakin duelarik, istantean uzten du bazterrera bere nahikaria. Ordurako, bazuen kapitainak etxalde bat bere diruz eresia, eta asmoa hartua zuen han igaroko zituela bizitzako gainerako urteak. Hala ere, bere aurkariari eman zizkion, bai etxaldea, bai sari-diruetatik geratzen zitzaziona –etxalderako azienda eros zezan–, eta berak eskatu zion neska gaztearen aitari onar zezala alabaren eta haren maitearen arteko ezkontza. Agureak, ordea, nola ohorearen kariaz gure lagunaren zordun sentitzen zuen bere burua, ez zuen inolaz ere onartu nahi, eta, hala, kapitainak, neskaren aita horren

tematua ikusirik, bere herria utzi zuen, eta ez zen itzuli harik eta neska hura bere nahien arabera ezkondua zela entzun zuen arte. «Bai gizon prestua!», oihu egingo duzu. Halaxe da; eta, guztiarekin ere, erabat hezigabea duzu: gaua bezain isila da, eta badu axolagabetasun ezjakin moduko bat, zeinak, haren jokaera guztiz harrigarri bihurtu arren, zapuztu egiten baititu gizona bestelakoa balitz haren aldera piztuko liratekeen interesa eta begikotasuna.

Ez dezazula pentsa, baina, nire erabakietan ahultzen ari naizenik, pixka bat kexu naizelako edo inoiz ezagutuko ez dudan kontsolagarri bat irudikatzen dudalako nire nekeentzat. Patua bera bezain sendoak dira erabakiok, eta eguraldiak itsasoratzeko beta ematen digun artean baino ez da geroratuko nire bidaia. Izugarri latza izan dugu negua, baina udaberri ona dakarrela dirudi, eta sasoia nabarmen aurreratua omen dugu; beraz, baliteke uste baino lehen itsasoratzea. Ez dut egingo ezer ausarkeriaz: nahikoa ezagutzen nauzunez, badakizu uste osoa izan dezakezula nire zuhurtzian eta neurritasunean, besteen segurtasuna nire kontu baldin bada.

Ezin azal diezazuket zer sentipen eragiten didan nire ekinaldia laster abiatzekoa dela ikusteak. Ezinezkoa dut zuri aditze-ra ematea zer ikara-sentsazio sortzen zaidan, erdi atsegingarria erdi izugarria, gure irteera prestatzen dihardudalarik. Eskualde esploratugabeetara noa, «behe-lainoen eta elurren lurraldera»¹, baina nik ez dut hilko albatrosik; beraz, ez zaitzala kezka nire segurtasunak, eta ez beldurrik izan *Marinel zabarra* bezain ahi-tua eta nahigabetua itzuli behar ote natzaizun. Irribarre egingo diozu nire aipamenari; sekretu bat jakinarazi nahi dizut, ordea:

1 *Marinel zabarraren balada*, S. T. Coleridge (Joseba Sarrionandiaren itzulpena).

Mary Shelley

ozeanoaren misterio arriskutsuei diedan zaletasuna, haiekiko dudan grina bizi hau, maiz egotzi izan diot poeta modernoetarik irudimentsuenaren lan horri. Zerbait dabilkit ariman ulertu ezin dudana. Lanari emana naiz ia guztiz; arretatsua nauzu, langile saiatua eta nekaezina, baina, hala ere, badut gauza harriarriekiko maitasun bat, sinesmen moduko bat nire egitasmo guztietan korapilatua, eta horrek gizonen ohiko bideetatik kanpo bultzatzen nau, are esploratu nahi ditudan itsaso bakartu eta eskualde ezezagun hauetaraino ere.

Natorren, baina, gogoeta maiteagoetara. Izango al dut aukera zu berriro ikusteko, itsaso neurrigabeak gurutzatu ondoren eta Afrikako edo Amerikako hego-hegoaldeko lurmuturretik itzulita? Ez naiz ausartzen halako arrakastarik izango dugula uste izatera, baina, aldi berean, eramangaitza zait irudi horren ifrentzuari begiratzea. Oraingoz, jarrai ezazu ahal duzunero idazten. Baliteke gogoia adoretzeko behar-beharren ditudanean jasotzea zure gutunak. Samurki maite zaitut. Nigandik beste berriarik inoiz jasotzen ez baduzu, nahitasunez har nazazu gogoan.

Bihotzez maite zaituen zure neba,

Robert Walton

HIRUGARREN GUTUNA

SAVILLE ANDREARI, INGALATERRA

Uztailaren 7a, 17**

ARREBA MAITEA:

Laster batean idazten dizkizut lerro gutxi batzuk, onik nagoela esateko, eta bidaian aurrera samartua. Arkhangelsketik etxerako bidean doan merkatari baten bitartez helduko da gutun hau Ingalaterrara. Nik baino zori hobea du hark, zeren baliteke nik urte askoan ez ikustea berriro jaioterria. Dena dela, gogaldi oneko nabil; gure gizonak ausartak dira, eta, itxura batean, borondate sendoa dute: etengabe igarotzen zaizkigu izotz puskak ontziaren ondotik –bidean topatuko ditugun arriskuen erakusgarri–, baina ez dirudi horrek bihotza galarazten dienik. Latitude handietara heldu gara dagoeneko, baina uda betean gaude, eta, nahiz ez duen Ingalaterran bezain epel egiten, espero ez nuen bezalako epeltasun bizigarri bat dakar haize hegoak, zeinak bizkor baikaramatza, bultzaka, nik irrika biziz iritsi nahi ditudan kosta horietarantz.

Orain arte, ez zaigu gertatu gutun batean aipatzea merezi duen gorabeherarik. Ekaitz gogor pare bat eta ontzira ura sartu izana ez dira itsasgizon saiatuek gogoan gordetzeko moduko istripuak, eta ondo pozik geratuko naiz gure bidaian zehar hori baino txarragorik ezer gertatzen ez bazaigu.

Agur, Margaret maitea. Seguru izan ezen, nire onerako, eta zure hobe beharrez, ez diodala arriskuari ausarkeriaz aurre egingo. Lasai jardungo dut, neurean iraunkor eta zuhur.

Mary Shelley

Baina arrakastak koroatuko du, bai, nire ahalegina. Zergatik ez du hala behar? Honaino iritsi naiz, bide segurua eginez inork zeharkatu gabeko itsasoetan zehar; izarrak berak dira nire garaipenaren lekuko eta testigu. Zer dela-eta ez jarraitu itsaso hezigabe baina manaerraz honetan aurrera? Zerk geldiaraz ditzake gizon baten bihotz deliboratua eta asmo erabakia?

Nire bihotz puztuaren nahi gabeko isuriak dituzu horiek. Bukatu beharra dut, ordea. Goiko zeruak gorde dezala nire arreba maitea!

R. W.